

IZENA BADU, BADA. BESTE BI ERRENTERRIARREN LANAK ESKURA

Elixabete Pérez Gaztelu
(Deustuko Unibertsitatea)

Milaka eta milaka gauza daude munduan guk badiren ere ez daki-gula; izenik ez dute guretzat, ez dira. Eta horixe bera gertatzen zaie gure gauzei: izenik ematen ez badiegu, izana ere ukatzen diegu; besteentzat, ez dira. Lerro hauen asmoa bi lanen berri ematea da, zuentzat behintzat, izena eta izana izan dezaten

2003 urtearen hasiera aski joria izan da euskal letretan nor izan ziren bi errenteriar olerkari berreskuratu, estaltzen zituen goroldioa kendu eta mundura ateratzeko, aurtengo otsailean eta apirilean plazaratu baitira, hurrenez hurren, Luis Jauregi Etxenagusia, *Jautarkol*, (1896-1971) eta Jose Ramon As-tibia Etxegoien, *Errenderi Aba*, (1881-1916) eliz gizon eta idazleen gainean egin diren azken lanak.

Jautarkol-en izena ez da, beharrik, bere sorterrian erabat arrotza. Baina egin dezagun kontu ezagun izatearen, gure artean bizirik sumatzearen atzean gizon-emakumeen borondatea eta lana daudela: buruen-buruenik, Mikel Ugalde eta, batez ere eta beti bezala, Xabier Olaskoagarenak. Bi herriko seme horien ahaleginez eta ekimenez udalak hartutako erabaki batzuk: plaza bati eta literatura sari bati *Jautarkol* izena jar-



tzea..., jaiotzaren mendeurrena zela eta antolatu zituzten jardunaldiak eta horien arrastoan Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian argitaratu ziren lanak, udalaren laguntzaz errenteriar filologo batzuek auzolanean mamitu eta 1999an argitaratu genuen Jauregiren lan guztien bilduma (*Jautarkolen sorta marduldua*)...; guztiak lagundu eta laguntzen du Luis Jauregi edo *Jautarkol* etxeko sentitzen.

Eusko Jaurlaritzak urteak daramatza *Bidegileak* bilduma argitaratzen. Era batera



edo bestera euskal kulturen bidegile, aitzindari izan direnen bizitza eta utzitako fruituak ume eta gazteei ezagutarazteko liburuxkak dira (20-25 orrialdekoak), argazki ugariz apainduta eta aise irakurtzeko modukoak. Karpetaka antolatuta daude: bakoitzak lau liburuxka izaten ditu (orain arte 29 karpeta kaleratu dituzte) eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan dohain banatzen ditu.

Bada, aurten, besteak beste, “Periko konfiteroaren eta Xeledoniren semea”, on Luis Jauregiri, iritsi zaio txanda, bildumako 27. karpetan aurkitu baitu plazarako aterabidea: Bitoriano Gandiaga, Joan Inazio Goikoetxea (*Gaztelu*) eta Salvatore Mitxelena, gure Parnaso txikiko hiru izar handiren liburuxkak lagun dituela ikusi du argia *Jautarkol*-enak.

Gaztetxoentzat ez ezik, helduontzat ere bada jakingarririk orrialde horietan. Gainera, ez dago adinaren aitzakiarik horiek ere **badirela** ez jakiteko: betiko moduan egin daiteke –liburu-denda edo liburutegira joz–, edo, nagia edo ezina duenak, aulkitik altxa gabe ere eskura izan dezake *Bidegileak* sorta osoa, *Jautarkol*-en liburuxka barne, eta oso-osorik, paperezkoa bezalakoa, alegia. Egin behar duen gauza bakarra da benetan merezi duen www.euskadi.net/euskara web orriko atal honetara jo:

http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/indice_e.asp.

Jose Ramon Astibia Etxegoien (*Errenderi Aba*¹, *Padre Raimundo de Rentería*...) kaputxinoa ere gaurkotasunez jantzia azaldu zaigu udaberri honetan, baina ez dut uste izen hori gure artean bolo-bolo dabilen horietakoa denik; haren lanen aditzea ere ez dute askok izango. Egia esan, ez du zoria oso aldeko izan Fanderiako semeak.

Hil zenetik (1916) hemeretzi urte luze joan ziren Tomas Elduaien kaputxinoak, *Aldaya* goitzenaz baliatuta, Astibia han eta hemen argitaratuta utzi zituen poesia gehienak bildu eta *Olerkiak* izeneko poesia-liburuan (1935) plazaratu zituen arte.

Urte horixe da, hain justu, Errenderi Abaren ospeak goia jo zueneko, 1935eko uztailaren 14an omenaldi gogoangarria egin baitzioten euskaltzale errenteriar eta kanpokoek. Hona horren erakusgarri txiki bat: “Euskaltzaleak” elkarteko lehendakariak eskatuta, Errenderiako udalbatzarrak ere onartu zuen (1935/07/10) Errenderi Abaren omenaldiarekin bat egitea. Oroitarri bat ere paratu zuten jaiotetxean, Fanderian. Ez zuen asko iraun: hurrengo urteko

¹ *Aba* hitza Sabino Arana Goirik asmatu zuen eta ‘aita’ esan nahi du; “Errenteria aita” edo “Aita Errenteria” esango genuke, gaur. Deizioa dela eta, ohartxo bat jatortasunaren eta garbitasunaren “esentziak” bilatzen ibili eta izen “kutsatu gabeak” erabilizale direnentzat: Astibia ezer bazen garbizalea, abertzale sutsua eta sabindar porrokatua zen eta **Errenderi** aukeratu zuen, bere borondatez aukeratu, bere burua izendatzeko.

irailean, euskararen oso adiskidea ez zen norbaiten eskuek galarazi zuten, betiko.

Orduko lekuko guztiek diote jai handia ospatu zutela: bai bere begiz ikusi eta oroimenean iltzatuta daukatena kontatzeko moduan diren errenteriarrek, bai idatziek, Aitzolek zuzentzen zuen *El día*-k batez ere. Bada, omenaldian hitz egin zutenetako bat Luis Jauregi Etxenagusia, *Jautarkol* izan zen, hain zuzen ere. Hitzaldia osorik argitaratu zen *El día*-n. Lehen aipatu dudan *Jautarkolen sorta marduldua* bilduman jaso dago.

1936an hasi zen zulo beltzak Astibia eta bere lana ere azpian hartu eta irentsi zituen. 1980ko hamarraldian beste saio bat izan zen Astibiaren izena berreskuratzeke, Josetxo Fernández, Joseba Lersundi, eta –berriz ere!– Xabier Olaskoaga eta Joseba Goñi errenteriarrek ahalegindu ziren horretan (aita Santi Onaindia karmeldarraren laguntzaz), baina saioak huts egin zuen.

Eta horrelaxe egon dira, berriz ere, Astibiaren lanak, lozorroan, beste 20 bat urtean aurten arte, 2003ko apirilean kalean baita aita Erramon Astibiaren idazlan guztien bilduma argazki, partitura, agiri eta abarrez ongi hornitua. Olatz Elustondo –Aiako euskal filologo gaztea– eta neroni arduratu gara lanaz.

“Gordeak azaldu” izendatu dut Astibiaren lanen bilduma horretako hitzaurrea baina “zaharrak berri” ere esan nezakeen edo, hobeto, “zahar gordeak berri eta berrituta azaldu”, garai bateko gai zaharrak –udaleko informatikariek erabili zituzten– itxura eta bitarteko berrietan egokituak plazaratu baititugu. Komunikagailuentzako moduko disko konpakto (CD) batean, alegia.

Baina hori aski ez dela, mundura zabaltzeko beste modu bat ere badu horrek guztiak. Errenteriako udalaren web orriaren

bitartez testua den zatia irakur daiteke (argazki, partitura eta gisa horretako eranskinak oraingoz, ez); hementxe:

<http://www.errenteria.info/aba/liburua.pdf>

Zahar eta gazte, Errenteriako eta kanpoko, guztiok ditugu orain irispidean, eskura, inoiz ez bezala, Internet deritzan asmakari izugarria dela bitarte, bi olerkari eta euskaltzale errenteriar handi: Jose Ramon Astibia Etxegoien, *Errenderi Aba*, eta Luis Jauregi Etxenagusia, *Jautarkol*. Lagunduko ahal dute **badirela** ikusarazten!

Azkena: *Izena badu, bada* izenburuko esatera ere “saretik” hartua dut.

<http://www.ivap.com/eusk/dudamuda/dudamuda.htm>

Ez horregatik.

El propósito del artículo es dar a conocer la reciente publicación de dos obras que tienen como objeto dos poetas (y prosistas) renterianos coetáneos: la biografía divulgativa de Luis Jauregi Etxenagusia, *Jautarkol*, en la colección *Bidegileak*, que edita la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, y la primera recopilación en un CD de la obra en verso y prosa –así como textos de canciones, himnos etc., junto con abundante material gráfico y documental (partituras, certificaciones, copias extraídas de microfilmes de publicaciones antiguas...)– del capuchino renteriano José Ramón Astibia Etxegoien, más conocido como *Errenderi aba* o padre Raimundo de Rentería. Ambos trabajos se pueden encontrar en las direcciones de Internet que se mencionan en el artículo: el librito de *Jautarkol* en su integridad y el de Astibia, la parte correspondiente al texto, sin incluir los anexos. *Quod est nomen habet*.

